izenpe

# Ziurtagiriak eskatzeko aplikazioa

# **TicketBAI**

Faktura jaulkitzeko prozesuan esku hartzen duen gailuak (saltokiko terminala, PCa, tableta, balantza, eta abar) edo modu koordinatuan esku hartzen duten gailuek (kutxa erregistratzailea + inprimagailu fiskala, balantza + PCa, eta abar) bermatu behar dute zerga-agintaritzari bidaltzeko sortzen eta biltegiratzen den euskarri elektronikoko datuak jaulkitako fakturaren informazio bera duela.

Dagokion euskarri elektronikorik ez duen faktura inprimatu batek (paperean edo e-faktura) ez du baliorik izango, eta alderantziz.

Halaber, prozesuak segurtasun-elementuak txertatuko ditu, zerga-agentziari bidaltzen zaion informazioa faktura jaulki ondoren aldatu ez dela ziurtatzeko, eta, bestela, izan den aldaketa identifikatu ahal izateko.

## Gailurako ziurtagiriak

# TicketBAIrako gailu-ziurtagiria

Faktura sortu eta jaulkitzean, fakturazio-gailuak faktura-fitxategia sortzen du eta gailu-ziurtagiria erabilita sinatzen du. Faktura-dokumentu fisiko eta/edo elektroniko bakoitzak zerga-informazio berbera dauka.

**Gailu-ziurtagiria:**

- Instalatuta eta fakturazio-gailuari (saltokiko terminala, gailu fiskala, tableta, eta abar) lotuta egongo da.
- Gailuan instalatutako fakturazio-softwareak gailu-ziurtagiria erabiltzen du fakturak sortzeko prozesuan fakturetako bakoitza sinatzeko.
- Foru-ogasunera igorritako fakturen fitxategien transmisioa autentifikatzeko ere erabili ahal izango da.



**Gailu-ziurtagiriak online komunikazio baten osotasuna identifikatzea eta segurtatzea ahalbidetzen du.**

# Gailu-ziurtagiria eskatzea

- Gailu-ziurtagiria eskatzeko, interesdunak BakQ batekin edo ziurtagiri elektroniko kualifikatu batekin (Izenpe, DNMT, NAN elektronikoa…) identifikatu beharko du.
- Eskatzaileak hirugarrenak baimendu ahal izango ditu ziurtagiria eskatzeko.
- Ziurtagiri bakoitzaren kostua 20,66 € (+ BEZa) da eta indarraldia 10 urtekoa.

- Eskabidea guztiz online egin daiteke Izenperen web-aplikazioaren bitartez:

  https://servicios.izenpe.com/ticketbai/

# Aplikaziorako sarbidea







Ziurta ezazu **aplikazioan autentifikatzeko** identifikazio elektronikorako bitarteko balioduna daukazula.
Atariak erakutsiko dizu zer bitarteko onartzen diren.

# Erabiltzailea kudeatzea




Autentifikatu ondoren, aplikazioak identifikatutako pertsonaren datuak erakutsiko dizkizu goian eskuinaldean.

Datuak egiaztatu eta **editatu** ditzakezu panela hedatuta.

# Erabiltzailea kudeatzea
## Datuak editatzea




Ziurtagiritik ateratako datuak ezin izango dira aldatu.

Pertsona berak **hainbat erakunde eta gailuren ziurtagiriak** kudea ditzake.

- Ordezkaria bada: berak eta IFK berarekin egindako eskabideak ikusi ahal izango ditu.
- Baimendua bada, berak egindako eskabideak bakarrik ikusi ahal izango ditu.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea




Aukera bakarra hautatu behar dugu: “Gestión de los certificados de dispositivo” (Gailu-ziurtagirien kudeaketa).




Lehenengo aldian zerrenda hutsik agertuko da.
Eskaeren ondoren, taulak egindako eskabideak jasoko ditu.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea

## Eskabidea




1. Baimendutakoen izen soziala.
2. Osatu eremuak




3. Erakunde bakoitzerako behar beste gailu gehitu daitezke.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea

## Eskabidea - Gailuaren datuak



# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea

## Eskabidea - Sinadura









# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea
## Eskabidea - Berrespena







Eusko Jaurlaritzaren **ordainketa-pasabidera** birbideratuko da.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea
## Eskabidea - Ordainketa




Eskabide berean doazen ziurtagiri guztiak ordaindu behar dira.
Ordainketa osatu arte ez da jaulkiko ziurtagiria.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea
## Eskabidea - Pasahitza eta jaulkipena




Ziurtagiria babestuko duen **pasahitza** eskatuko zaio erabiltzaileari. Eskabide bat baino gehiago badaude, pasahitz bera izango da ziurtagiri guztietarako.

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea

## Egoerak eta ekintzak




| EGOERAK | EKINTZAK |
|---|---|
| Sinatzeko | Editatu (prozesatu) |
| Ordaintzeko | Ezabatu |
| Jaulkitzeko | Eskabidea deskargatu |
| Amaitua | Ziurtagiria deskargatu |
| | Ezeztatu |

# Gailu-ziurtagiriak kudeatzea
## Egoerak eta ekintzak

| ID eskabidea | Sozietate-izena | Eskabide-data | Egilearen izena (O) | Gailu-eredua (OU) | Segida zenbakia (CN) | Egoera | Ekintzak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 90 | N1405794G | 2020-03-02 | DEMO1 | DEMO1 | DEMO1 | Baliogabetua | |
| 90 | N1405794G | 2020-03-02 | DEMO2 | DEMO2 | DEMO2 | Igorrita | |

- **Eskabidea deskargatzea:**
  - Ziurtagiriaren eskabideari dagokion PDFa deskargatzeko aukera ematen du.
- **Ziurtagiria deskargatzea:**
  - Pasahitza ez da gordetzen. Beraz, gogoratzen ez bada ez dago erabiltzeko aukerarik.
- **Ziurtagiria ezeztatzea:**
  - Ziurtagiri bakoitza bereiz ezeztatu ahal izango da.
  - Ezeztatzeko inprimakia sortu eta sinatu egin beharko da.
  - Ziurtagiria ezeztatzeko zerbitzuari deituko zaio.

izenpe